

URTEKO KONTUEN MEMORIA
2025eko EKITALDIA



AURKIBIDEA

SARRERA.....	4
1. FUNDAZIOAREN JARDUERA	5
A) DATU OROKORRAK	5
B) ERAKUNDEAREN XEDEAK	6
C) JARDUEREN LABURPENA	6
2. URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK	8
A) IRUDI ZEHATZA	8
B) KONTABILITATEKO PRINTZPIOAK	8
C) INFORMAZIOAREN ALDERAKETA	8
D) INFORMAZIOAREN ETA EGINDAKO ESTIMAZIOEN ERANTZUKIZUNA	8
E) PARTIDAK ETA ZENBAIT PARTIDETAN JASOTAKO ELEMENTUAK TALDEKATU	9
F) KONTABILITATEKO IRIZPIDEETAN ALDAKETAK, AKATSAK ETA KONTABILITATEKO ESTIMAZIOAK	9
3. SOBERAKINA EZARTZEA	9
4. ERREGISTRORAKO ETA BALORZAIORAKO ARAUAK	9
A) IBILGETU UKIEZINA ETA MATERIALA	9
B) JARDUERA BERAREN ERABILTZAILEAK ETA BESTE ZORDUNAK	10
C) EKARPENAK FUNDAZIOKO ZUZKIDURAN	10
D) DIRULAGUNTZAK	10
E) SALDOEN SAILKAPENA, ARRUNTAK ETA EZ ARRUNTAK	11
F) ETEKINEN GAINEKO ZERGA	11
G) SARRERAK ETA GASTUAK	11
H) INGURUMENA	12
5. IBILGETU MATERIALA.....	12
6. ONDARE HISTORIKOAREN ONDASUNAK	12
7. HIGIEZINETAKO INBERTSIOA	12
8. IBILGETU UKIEZINA	12
9. ERRENTAMENDUAK ETA ANTZEKO IZAERA DUTEN ERAGIKETAK	12
10. FINANTZA BALIABIDEAK.....	12
11. ERABILTZAILEAK ETA JARDUERAREN BESTE ZORDUNAK	13
12. ONURADUNAK-HARTZEKODUNAK	13
13. FUNTS PROPIOAK.....	13
14. IZAKINAK.....	13
15. ATZERRIKO MONETA.....	13
16. EGOERA FISKALA	14
17. DIRU SARRERAK ETA GASTUAK	14
18. HORNIDURAK ETA KONTINGENTZIAK.....	15
19. INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA	15
20. LANGILEEN EPE LUZERA KO ORDAINSARIAK	15
21. JASOTAKO DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK	15
22. IRABAZIZKO XEDERIK GABEKO ERAKUNDEEN ARTEKO FUSIOAK ETA NEGOZIOEN KONBINAZIOAK	16

23. BATERAKO NEGOZIOAK	16
24. ERAKUNDEAREN JARDUERA. ONDAREZKO ELEMENTUAK NORBERE XEDEETARAKO EZARTZEA. ADMINISTRAZIO GASTUAK	16
I. JARDUERA	16
II. JARDUERA	23
III. JARDUERA	28
IV. JARDUERA	30
25. SALTZEKO DAUDEN JARDUERA EZ-KORRONTEAK ETA ETENDAKO ERAGIKETAK	39
26. ITXIERAREN ONDORENGO GERTAERAK	39
27. ERAGIKETAK LOTURA DUTEN ALDERDIEKIN	39
28. BESTELAKO INFORMAZIOA	40
A) PATRONATUKO KIDEAK EKITALDIAREN ITXIERAN	40
B) ERAKUNDE PUBLIKOEK PATRONATUAN DUTEN GEHIENGO PARTE HARTZEA ETA PARTE HARTZE HORREN PORTZENTAJEA.	40
C) PATRONATUKO KIDEEK KONTZERTUENGATIK JASOTAKO OSOKO ORDAINSARIAK.	40
D) PATRONATUKO KIDEN ETA FUNDAZIOAREN ARTEKO KONTRATU BIDEZKO HARREMANAK	41
E) ORDEZKARITZAK ETA AHALDUNTZEAK.	41
F) ORDAINDUTAKO ZERBITZUEN AZALPENA	41
G) MERKATARITZA SOZIALTATEETAKO EDO BESTE FUNDAZIOETAKO PARTAIDETZA	41
H) EKITALDIAN GARATUTAKO MERKATARITZA JARDUERAK	41
I) DAUDEN KREDITUEN ERAGIKETAK	41
J) ONDAREZKO GORABEHERAK, KARGAK EZARTZEN DITUEN EGINTZAK, XEDAPENAK, TRANSAKZIOAK EDO LEGEAREN 22. ARTIKULUAN AZALDUTAKO ONDASUNEN GAINEN ARBITRAJEA.	41
K) GERENTZIAN EGONDAKO GORABEHERAK.	41
L) GERENTZIA EDO ZUZENDARITZA PROPIOA, KONTRATATUTAKO HIRUGARRENEN BIDEZ.	41
M) EKITALDIKO BATEZ BESTEKO LANGILE KOPURUA	42
N) BERE KONTUAK KANPOKO AUDITORIAREN MENDE JARTZEKO BEHARRA	42
O) GARRANTZI EKONOMIKOA	42
29. SEGMENTATUKO INFORMAZIOA	42
30. INBENTARIOA	42
31. MERKATARITZA ERAGIKETEN HORNITZAILEEI GERORATUTAKO ORDAINKETAK	43
32. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA	44
33. ESKUDIRU FLUXUEN EGOERA	47
34. LANGILEEN DATUAK ETA AFA-KO EKARPENA	50

SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legeak 31. artikuluan ezartzen du lehendakariak edo dagokion pertsonak urteko kontuak egin behar dituela, eta patronatuak onetsi behar dituela ekitaldia itxi eta gehienez ere sei hilabeteko epean. Urteko kontuetan sartzen dira balantzea eta emaitzen kontua, zeinetan jaso beharko baita fundazioaren ondare, ekonomia eta finantza egoera; eta ekitaldi ekonomikoan egindako jardueren memoria, fundazioaren helburua bete dela behar bezala adierazteko eta justifikatzeko.

Memoria hori Babesletzan aurkeztu behar da, legez ezarritako kontu ematearen ondoriozko betebeharrak direla eta.

Araudi hori betetzeko egin da Memoria hau, eta 2025eko ekitaldian Patronatuko osoko bilkurak onartutako akordioen laburpena ere atxiki da.

HARREMANETARAKO

Luisa López Luque

1. FUNDAZIOAREN JARDUERA

a) Datu orokorrak

FUNDACIÓN ÁLAVA VIVE DEPORTE – ALVIDE kirol fundazio pribatua da, 2006ko abenduaren 4an Gasteizen emandako eskritura bidez eratu zen Bilboko Notario Elkargo Txist Prestuko MANUEL MARÍA RUEDA DIAZ DE RÁBAGO notario jaunaren aurrean (protokolo zenbakia 4.032).

Arabako Foru Aldundiak erabaki zuen fundazioa eratzea, fundatzaile bakar gisa, Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 21eko 73/2006 Foru Dekretuaren bidez.

Fundazioen Erregistroan izena emanda dago eta F-203 erregistro zenbakia du.

Fundazioaren Patronatuaren 2016ko otsailaren 22ko Erabakiaren bidez, fundazioaren izena aldatzea onartu zen, estatutuen 1. artikuluan jaso, eta "FUNDACIÓN ÁLAVA VIVE DEPORTE – ALVIDE" izatetik "FUNDACIÓN KIROLARABA FUNDAZIOA" izatera pasatu zen.

Aldaketa hori Gasteizen emandako eskritura publikoaren bidez egin zen 2016ko martxoaren 9an Euskal Herriko Notario Elkargo Txist Prestuko BLANCA PALACIOS GUILLÉN notarioaren aurrean eta EHAAan argitaratu zen 2016ko maiatzaren 2an (81. zk.).

Jarduteko lurralde eremuari dagokionez, Arabako Lurralde Historikora hedatu da batez ere, Estatutueta 3. artikuluen arabera.

Fundazioaren egoitza eratu zenean finkatu zen: Amadeo Garcia de Salazar plaza z.g. Gasteiz . 2007ko ekainaren 14an Patronatuak erabaki zuen helbide hori Arabako Kirol Etxeko lokal batera lekualdatzea, Gasteizko Zerkabarren kaleko 5. zenbakiko behean.

Hasierako zuzkidura hogeita hamar mila eurokoa zen.

Fundazioaren zerga identifikazioko kodea, Arabako Foru Aldundiak emana, G01410182 da.

Fundazioak kanpo-auditoretzaren mende jartzen ditu bere kontuak, Arabako Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikokoa delako.

Patronatuaren 2018ko urriaren 23ko erabakiaren bidez, besteren artean, onetsi zen estatutuak Fundazioen Lege berrira egokitzea eta fundazioaren egoitza Probintzia plazako 5. zenbakiko 3. solairura aldatzea.

Aldaketa hori Gasteizen emandako eskritura publikoaren bidez egin zen, 2018ko abenduaren 10ean, Euskal Herriko Notario Elkargo Txist Prestuko BLANCA PALACIOS GUILLÉN notarioaren aurrean.

b) Erakundearen xedeak

1. Fundazioa irabazteko xederik gabeko erakundea da, eta bere helburua Araban kirola sustatzea eta garatzea da, errendimendu handiko kirol ez-profesionalari lehentasuna emanez.

Bere helburuak betetzeko, mota guztietako baliabide ekonomikoak erakarriko ditu, batez ere, babesletza publikoak eta pribatuak. Baliabide horiek Aldundiak egiten dituen programak finantzatzeko erabiliko ditu, eta etorkizun handiko kirolarien kirola hobetzeko beharrezkoak diren zerbitzuak emango ditu. Era berean, edozein kirolari edo kirol-erakunde ez-profesionalari zuzeneko edo zeharkako babesa ematea bultzatuko du.

2. Horren ondorioetarako, goi mailako kiroltzat hartzen da Arabako lurraldeko kirol federazioei atxikitako kirol klub edo elkarteetako kirolariek estatuko amateur mailarik goreneko lehiaketetan parte hartuz egiten dutena, baita beren mailaren, ibilbidearen eta kirol lorpenen garrantziagatik fundazioak berak sustatzea erabakitzen duen banakako kirolariena ere; eta, berriz, kirol ez-profesionaltzat hartzen da kirolariek kirol jarduera zaletasunagatik edo onura fisikoagatik soilik egiten dutena, irabazia edo ordaina lortzeko asmorik gabe, helburu ludikoa ekonomikoaren gainetik eta jolasa lanaren gainetik jarrita, kirol jarduera inola ere haren ogibidea den ordainsaria lortzeko modu bat izan gabe, eta inola ere ezin izan dezaketelarik mota honetako kirolarien lan harremanak arautzen dituen ekainaren 26ko 1006/1985 Errege Dekretuak 1.2. artikuluan deskribatzen duen kirolari profesionalaren izaera. Fundazioak garatu beharreko programak direla-eta, eta errendimendu handiko ez-profesionaltzat hartu ahal izateko kirol modalitate bakoitzean parte hartu behar duten gutxienekoak zehaztearren, fundazioaren patronatuak, berak ezarritako irizpideen arabera, urtero zerrendatu beharko ditu Arabako kirol federazioetako bakoitzari dagozkion mailak.

3. Helburu hori betetzeko, Fundazioak egoki iritzitako legezko bitartekoak garatu ahal izango ditu. Horretarako, bere baliabide ekonomikoen arabera eta babesletzak kasu bakoitzean onesten dituen programa zehatzekin bat eginez, honako jarduerak egingo ditu:

- a) Baliabide ekonomikoak lortzea edozein pertsona fisiko, juridiko, publiko edo pribaturengandik edo publizitate jarduera ekonomikotik, baliabide horiek Arabako kirola sustatzeko eta garatzeko programetan erabiltzeko.
- b) Erabilgarri dauden baliabide ekonomikoen behar bezalako erabilera bermatuko duten eta kirola hobetzen lagunduko duten kirol programak eta programa ekonomikoak sortzea.
- c) Kirol programa horiek garatzen eta egikaritzen parte hartzea.
- d) Kirola sustatzen eta garatzen laguntzen duten kirol ekitaldiak edo kirolarekin lotutako jarduerak antolatzea eta, hala badagokio, haien babesletza egitea.
- e) Kirola babesteko eragiketak sustatzea eta arlo horretan aholkularitza ematea.
- f) Fundazioaren xedea betetzen laguntzen duen beste edozein jarduera.

4. Fundazioaren helburua lortzeko, fundazioak beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin lankidetzan jardungo du, eta dagozkion lankidetzak eta babesletzak akordioak sinatuko ditu.

c) Jardueren laburpena

Fundazioak ez zuen merkataritza arloko jarduerarik egin 2025ean. Fundazioaren jarduera guztiak, dagokion ekitaldian, interes orokorrerako dira, Araban kirola sustatzea eta garatzea baitute xede.

- **Fundazioak ekitaldi honetan bere jarduerak hauek egin ditu:**
 - I. Goi-mailako klubentzako laguntzak emateko deialdia.
 - II. Goi-mailako kirolarientzako laguntzen deialdia.
 - III. Etorkizun handiko kirolariei laguntzeko deialdia.
 - IV. Enpresen eta kirol erakundeen arteko lankidetza hitzarmenak Fundazioaren bitartez.
- **Jarduera bakoitzaren datuak:**

I. jarduera

Jardueraren azalpena: goi-mailako klubentzako laguntzen deialdia.

Xedeak eta jarduteko lerroak: Arabako Lurralde Historikoan eta/edo Trebiñuko enklabeen kokatutako kirol-klub eta/edo -elkarteei laguntzak ematea, baldin eta Eusko Jaurlaritzako kirol-erakundeen erregistroan izena emanda badaude eta Arabako Lurralde Kirol Federazioei atxikita badaude eta kategoria absolutuan goi-mailako taldeak badituzte.

Laguntza honen helburua da deialdi honen 3. artikuluan deskribatzen diren baldintzak betetzen dituzten klubek eta/edo kirol-elkarteei behar adina baliabide izatea beren jarduerak garatzeko.

II. jarduera

Jardueraren azalpena: goi-mailako kirolarientzako laguntzen deialdia.

Xedeak eta jarduteko lerroak: kirol-jardueraren lehiaketa-maila gorenetan parte hartzen duten kategoria absolutuetako Arabako kirolari federatuei laguntzak ematea.

Laguntza horiek oinarrietan ezarritako aldiaren entrenamenduak eragindako gastuen zati bat finantzatzeko dira, eta nahi den kirol-arrakasta lortzeko lankidetza gisa.

III. jarduera

Jardueraren azalpena: etorkizun handiko kirolariei laguntzeko zerbitzua.

Xedeak eta jarduteko lerroak: gauzazko dirulaguntzak ematea, hau da, Arabako promesa egiten duten kirolariei laguntzeko hainbat zerbitzu ematea, enpresa laguntzaileekin egindako kontratuen bidez.

IV. jarduera

Jardueraren azalpena: enpresen eta kirol erakundeen arteko lankidetza hitzarmenak Fundazioaren bitartez.

Xedeak eta jarduteko lerroak: enpresa lankideen bidez, Arabako Lurralde Historikoko kirolariei eta kirol erakundeei laguntza ekonomikoa ematea.

2. URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

a) Irudi zehatza

Fundazioko lehendakariak urteko kontu hauek formulatu ditu ondarearen, finantza egoeraren eta eragiketen emaitzen irudi zehatza emateko eta 2025eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiaren ondare garbian egondako aldaketen irudi zehatza emateko.

2025eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiaren Urteko Kontuak atxiki dira; kontu horiek Fundazioaren kontabilitateko erregistroetatik lortu dira eta Kontabilitateko eta Kontuen Ikuskaritzak

o Institutuaren 2013ko martxoaren 26ko Ebazpenaren arabera aurkeztu dira, Ebazpen horren bidez onartu baitzen irabaz asmorik gabeko erakundeentzako kontabilitateko plan orokorra. Berariazko arau hauek urriaren 24ko 1491/2011 Errege Dekretua osatzen dute, Kontabilitate Plan Orokorra irabazi-asmorik erakundeetarako egokitze arauak onartzen dituen.

Urteko kontuen ereduak aipatutako Plan horretako eredu normalean aurkeztu dira, 8/2014 Foru Dekretuan argitaratutako instrukzioaren arabera.

2024ko ekitaldiko urteko kontuak fundazioaren patronatuak onartu zituen 2025eko maiatzaren 12an, kontuak eta BNFIX KLZ Auditores SLP enpresak egindako ikuskaritzaren txostena ezagutu ondoren.

b) Kontabilitateko printzipioak

Urteko kontu hauek egiteko erabili diren kontabilitateko printzipioak eta arauak memoria honetako “Erregistro eta balorazio oharrak” atalean daude laburtuta. Urteko kontu hauek egiteko erabili dira ondarean eragina duten nahitaezko kontabilitateko printzipio guztiak, finantza egoera eta emaitzak.

c) Informazioaren alderaketa

Merkataritzako legedian aurreikusitakoaren arabera, Patronatuko kideek balantzeko, emaitzen kontuko eta memoriako partida bakoitzarekin itxi den ekitaldiari dagozkion zifrak aurkezteaz gain aurreko ekitaldikoak aurkeztu dituzte, alderatu ahal izateko.

d) Informazioaren eta egindako estimazioen erantzukizuna

Urteko kontu hauetan dagoen informazioa Patronatuko kideen erantzukizuna da.

2025eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion fundazioko urteko kontuetan patronatuko lehendakariak egindako estimazioak erabili ahal izan dira zenbaitetan bertan erregistratutako aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromisoren batzuk baloratzeko. Funtsean, hauek dira zenbatespenak:

- Narriaduraren ondoriozko aktibo batzuen galerak.
- Ukitu ezin diren aktiboen bizitza baliagarria.

Urteko kontuak formulatzerakoan aztertutako ekintzei buruz eskura dagoen informaziorik hoberenaren arabera egiten diren arren estimazio hauek, litekeena da etorkizunean gerta daitezkeen gorabeheren ondorioz hurrengo ekitaldietan aldatu behar izatea; hala balitz, modu prospektiboan egingo litzateke hori, etorkizuneko emaitzen kontuetan estimazioaren aldaketen ondorioak aitortuz.

e) Partidak eta zenbait partidetan jasotako elementuak taldekatu

Urteko kontuetan ez dago balantzean edo emaitzen kontuan taldekatutako partidarik.

Balantzeko partida bitan edo gehiagotan erregistratutako ondare elementurik ere ez dago.

f) Kontabilitateko irizpideetan aldaketak, akatsak eta kontabilitateko estimazioak

2025eko ekitaldian ez da aldaketa esanguratsurik egon kontabilitateko irizpideetan aurreko ekitaldiko irizpideekin alderatuz gero; era berean, ez da kontabilitateko estimazioetan ere aldaketa esanguratsurik egon, ez egungo ekitaldian eragina duenik ez etorkizunekoetan eragin dezaketela uste denik.

Gainera, 2025eko ekitaldiko urteko kontuetan ez dago ekitaldian hautemandako akatsen ondorioz egindako doikuntzarik.

3. SOBERAKINA EZARTZEA

Fundazioak 7.749,75 euroko soberakin positiboa du 2025eko ekitaldian, eta aurreko ekitaldietako soberakin negatiboen kontuari aplikatuko zaio.

4. ERREGISTRORAKO ETA BALORZAIORAKO ARAUAK

2025eko abenduaren 31n amaitutako urteko kontuak egiteko Fundazioak erabilitako erregistro eta balorazio arau nagusiei dagokienez, Kontabilitateko Plan Orokorrean ezarritakoaren arabera hauek izan dira:

a) Ibilgetu ukiezina eta materiala

Ibilgetu ukiezinak erosteko edo ekoizteko kostuagatik aitortzen dira hasieran eta ondoren beren kostua ken pilatutako amortizazioa (beren bizitza baliagarriaren arabera kalkulatuta) eta narriaduragatiko galera egiten da baloratzeko. Bizitza baliagarri mugagabeko aktibo ukiezinak ez dira amortizatzen, baina narriadura testa egiten zaie gutxienez urtean behin.

Fundazioak hauek identifikatu ditu:

- Eskudiruzko fluxuak sortzen dituzten higiezin immaterialeko ondasunak: ondasunak entregatzearen edo zerbitzuak eskaintzearen bidez merkataritza arloko mozkina sortzeko edo etekinen bat lortzeko edukitzen dira.
- Eskudiruzko fluxurik sortzen ez duten higiezin immaterialeko ondasunak: mozkin komertziala sortzeaz bestelako xederen batengatik edukitzen direnak, hala nola aktibo horiek sortzen dituzten eta herritarrei mesede egiten dieten fluxu ekonomiko sozialak, hau da, onura sozial bat edo zerbitzu ahalmena.

Fundazioaren jarduera kontuan izanda, Fundazioaren aktibo guztiak eskudirurik sortzen ez dutenak dira.

Ekitaldiaren amaieran narriadura zantzuak daudela ebaluatu da, berreskuratu daitezkeen zenbatekoak estimatu dira eta dagozkion balorazio arloko zuzenketak egin dira. Fundazioak kontabilitate arloan aitortzen ditu narriadura horren ondorioz aktibo hauen balioan erregistratutako galerak eta emaitzen kontuko "Narriaduragatiko galera gordinak" epigrafea erabili du.

Ekitaldi honetan ez da aktibo ukiezin hauen ondorioz "Narriaduragatiko galera gordinik" aitortu.

Aplikazio informatikoak

Fundazioaren kudeaketako oinarritzko aplikazio informatikoen eta sistema informatikoen inguruko erosketen eta garapenen kostuak balantzeko "Ibilgetu ukiezin" epigrafearen gain erregistratzen dira. Horien mantentze kostuak dagokion ekitaldiko emaitzen kontuen kargu erregistratzen dira.

Webgunearen amortizazioa hamar urteko epean egiten da linealki, aplikazioa ustiatzen hasten denetik hasita.

Informazioa prozesatzeko ekipoak

Partida honek Fundazioaren jarduerari atxikitako lau ekipo informatiko erosteko kostua jasotzen du. Modu linealean amortizatzen da, eskuratzen denetik hiru urteko balio-bizitza kontuan hartuta.

Beste ibilgetu material batzuk

Partida honetan, Fundazioaren jarduerari atxikitako ibilgetuaren elementu bat erosteko kostua jasotzen da. Linealki amortizatzen da, eskuratu zenetik hiru urteko balio-bizitza kontuan hartuta. Ekitaldi-itxieran, partida hau osatzen duten aktiboak erabat amortizatuta daude.

b) Jarduera beraren erabiltzaileak eta beste zordunak

Babesle, afiliatu edo bestelako zordunen kuotek, dohaintzek eta antzeko laguntzek, epemuga hurbila badute, kobratzeko eskubidea sortuko dute, eta bere balio nominalarekin kontabilizatuko dira. Mugaegunak epe hori gaindituz gero, egungo balioaren arabera aitortuko dira. Egungo balioaren eta kredituzko nominalaren arteko aldea finantza sarrera bezala erregistratuko da emaitzen kontuan, amortizatutako kostu irizpidearen arabera.

Fundazioak gutxienez ekitaldi bakoitzaren itxieran ebaluatzen du bere finantza aktiboen balio narriaduragatiko galeren zantzurik baden, eta galera horiek aktibo horien zenbateko berreskuragarria liburuetaiko balioa baino zenbateko txikiagora murrizten ote duten. Zantzuren bat egonez gero, aktiboaren balio berreskuragarria estimatzen da balio narriaduragatiko balizko galeraren irismena zehazteko.

Fundazioko lehendakariaren ustez aktiboen kontabilitateko balioa ez da horien balio berreskuragarria baino handiagoa, beraz, 2025eko ekitaldian ez da aktiboen narriaduragatiko galerarik egon.

c) Ekarpinak Fundazioko zuzkiduran

Fundazioko zuzkidurarako diren ekarpinak egindako ekarpenen zenbateko nominalarekin baloratzen dira.

d) Dirulaguntzak

Diruzko dirulaguntzak baloratzeko, emandako zenbatekoaren arrazoizko balioa hartuko da kontuan.

Diruzkoak ez direnak edo gauzatan egiten direnak jasotako ondasunaren edo zerbitzuaren arrazoizko balioaren arabera baloratuko dira, ondasun edo zerbitzu horren arrazoizko balioa modu fidagarrian zehaztea baldin badago.

Emandako dirulaguntzak kontabilizatzeko Fundazioak erabiltzen dituen irizpideak hauek dira:

- Ustiapenerako dirulaguntza ez itzulgarriak: berariazko xede baterako esleitu gabe lortuz gero, aitortutako ekitaldiko soberakinean kontabilizatuko dira zuzenean.
- Kapitalaren dirulaguntza ez itzulgarriak: hasierako aitorpenetan Fundazioak aktibo lege jasotako ondasunak edo zerbitzuak erregistratu ditu batetik eta bestetik ondare garbian dagokion hazkundera. Erregistro datatik aurrera kapital dirulaguntzak emaitzari egozten

zaizkio horiekin finantzatutako aktiboek aldi horretan izandako balio galtzearen proportzioan; baina balio galtzerik izan ezin duten aktiboak badira, dagokion ekitaldiko emaitzari egotziko zaio horien besterentzea edo baja.

Itzuli daitezkeen dirulaguntzak pasibo bezala erregistratzen dira, itzulezin bihurtu arte. Ondorio hauetarako, itzulezinak dira Fundazioaren aldeko dirulaguntza, dohaintza edo legatua emateko banako akordioa badago, hori emateko baldintzak bete badira eta jaso izanari buruz arrazoizko zalantzarik ez badago. Atal honen barruan daude egoeraren balantzearen pasiboak sartutako jarduera lagungarrien gaineko finantzaketa soberakinak.

e) Saldoen sailkapena, arruntak eta ez arruntak

Atxikitako balantzeko saldoak ez arruntak eta arruntak dira. Arruntak dira ustiapenaren ziklo normalean Fundazioak saldu, kontsumitu, ordaindu edo egitea espero dituenak. Sailkapen horren barruan sartzen ez diren gainerako guztiak ez arruntak dira.

f) Etekinen gaineko zerga

Sozietateen gaineko zergari buruzko 37/2013 Foru Arauaren arabera likidatuko da 2025eko ekitaldirako Sozietateen gaineko zerga.

Ekitaldi bakoitzeko emaitzen kontuan dago Sozietateen gaineko Zergagatiko gastua eta kalkulu horretan sartzen da ekitaldian sortutako zergaren kuota, baita Fundazioak dituen kuotaren hobariak eta kenkariak ere.

Balio zuhurtasunaren printzipioa oinarri hartu eta konpentsatu beharreko zerga oinarri negatiboen ondoriozko kreditu fiskalak eta Fundazioak kuotan izan ditzakeen hobari eta kenkariak ez dira sortutako ekitaldiko emaitzetan erregistratzen, konpentsatzen edo erabiltzen diren ekitaldiko gastu gutxiago legez hartzen dira.

Kirolaraba Fundazioak irabazi-asmorik gabeko erakundeen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauan aurreikusitako zerga-araubide berezia du, irabazi-asmorik gabeko erakundeen sozietateen gaineko zergari dagokionez.

Arestian azaldutakoaren arabera, eta zerga-oinarri negatiboa agerian geratzen dela kontuan hartuta, ez da gasturik sortu Sozietateen gaineko Zergagatik.

g) Sarrerak eta gastuak

Fundazioak egindako gastuak egindako ekitaldiko emaitzen kontuan kontabilizatuko dira, finantza korrontea dena delako datan egin arren. Bereziki, Fundazioak emandako laguntzak aitortuko dira ematea onartutako unean bertan.

Fundazioak finko emandako laguntzak eta urte anitzeko izaera duten hitzartutako beste gastu batzuk pasiboko kontu batean ordainduz ematea onartutako ekitaldiko emaitzetan kontabilizatuko dira, hartutako konpromisoaren egungo balioarekin.

Ondasunak emateagatiko edo zerbitzuak eskaintzeagatiko sarrerak adostutako zenbatekoaren arabera baloratuko dira.

Erabiltzaileen edo afiliatuen kuotak sarrera gisa aitortuko dira, dagozkien ekitaldian.

Baliabideak, laguntzaileak eta lankideak hautemateko promozioetatik datozen sarrerak kanpainak eta ekitaldiak egiten direnean aitortuko dira.

Beharrezko diren periodifikazioak egin beharko dira betiere.

h) Ingurumena

Fundazioko jardueren ohiko garapenak ingurumenean izan ditzakeen eraginak kentzeko, mugatzeko edo kontrolatzeko sistemak, ekipoak eta instalazioak erosteko gastuak ibilgetuko inbertsioztat hartuko dira.

Ingurumenarekin zerikusia duten gainerako gastuak, elementu ibilgetuak erosteko ez direnak, ekitaldiko gastutzat hartuko dira.

5. IBILGETU MATERIALA

Ekipo informatikoak: 2.623,76 euro 2020ko urrian erositako lau ordenagailu eramangarri erosteko kostuagatik, amortizazioa hiru urtetan kalkulatuta (urteko % 33,33). Metatutako amortizazioa -2.623,76 eurokoa da, beraz, erabat amortizatuta daude.

6. ONDARE HISTORIKOAREN ONDASUNAK

Ez dago.

7. HIGIEZINETAKO INBERTSIOA

Ez dago.

8. IBILGETU UKIEZINA

Aplikazio informatikoak: 5.000,00 euro, fundazioaren webgunea erosteko kostuagatik, 2021ean; 10 urteko amortizazioa kalkulatu da, hau da, % 10 urtean. Amortizazio metatua -2.012,45 eurokoa da. Balio garbia 2.987,55 eurokoa da.

9. ERRENTAMENDUAK ETA ANTZEKO IZAERA DUTEN ERAGIKETAK

Ez dago.

10. FINANTZA BALIABIDEAK

Ez dago.

11. ERABILTZAILEAK ETA JARDUERAREN BESTE ZORDUNAK

Epigrafe honetan enpresa-lankidetzetatik datozen kobratu gabeko zorrak jasotzen dira.

Partida honek honako mugimendu hau izan du 2024 eta 2025e ekitaldietan:

Mugimenduak	Zenbatekoa (€)
Hasierako saldoa 2024(e)ko-ekit	28.150,04
Gehikuntzak	431.728,00
Aplikazioaren ondoriozko bajak	(394.788,00)
Baliogabetzeagatiko bajak	0,00
Amaierako saldoa 2024(e)ko-ekit	65.090,04
Hasierako saldoa 2025e(e)ko-ekit	65.090,04
Gehikuntzak	580.703,00
Aplikazioaren ondoriozko bajak	(580.543,00)
Baliogabetzeagatiko bajak	(2.900,00)
Amaierako saldoa 2025e(e)ko-ekit	62.350,04

12. ONURADUNAK-HARTZEKODUNAK

Epe luzeko zorren kontuaren saldoa jasotako fidantzen eta gordailuen kontzeptuari dagokio.

Epigrafe horien zenbatekoa, 2025eko abenduaren 31ko balantzean, honek partida hauek osatzen dute:

	Euroak
Onuradunak-hartzekodunak	22.846,63
Hainbat hartzekodun	4.000,00
GUZTIRA	26.846,63

13. FUNTS PROPIOAK

2024ko eta 2025eko abenduaren 31ko balantzeen Ondare garbiaren epigrafeko saldoa (fundazio zuzkidura) 30.000,00 eurokoa da eta Fundazioa eratzeko erabili zen zuzkidura da.

2025eko ekitaldian ez da ekarpenik egin. Oraindik egin gabeko ekarpenik ere ez dago. Ez dago egiteke ekarpenik.

14. IZAKINAK

Ez dago.

15. ATZERRIKO MONETA

Ez dago.

16. EGOERA FISKALA

Kirolaraba Fundazioak zerga erregimen berezia du, irabazteko asmorik gabeko erakundeek eta mezenasgorako zerga pizgarrien zerga araubideari buruzko 35/2021 Foru Arauan, abenduaren 23koa, aurreikusi bezala, irabazteko asmorik gabeko erakundeetarako sozietateen gaineko zergari dagokionez.

Aurrez esandakoarekin bat, Patronatuak uste du 2025eko abenduaren 31n ez dela Sozietateen gaineko Zergagatik gasturik sortu. Gainera, sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarri negatiboa aurkeztu du.

Indarrean dauden legezko xedapenen arabera, zergen likidazioak ezin dira behin betikotzat hartu zerga ikuskaritzek aztertu arte edo lau urteko preskripzio epea igaro arte. 2025eko abenduaren 31n zerga arloko agintariek ikuskatzeko irekita ditu Fundazioak eratu zenetik ezar dakizkiokeen zerga nagusi guztiak. Fundazioak ez du uste ikuskaritza egiten bada garrantzizko pasibo gehigarriak sortuko denik.

2011ko urtarrilaren 1ean Balio Erantsiari buruzko Zergaren Erroldako ziurtagiria egin zen eta Fundazioaren baja agertu zen.

17. DIRU SARRERAK ETA GASTUAK

1.- Diruzko laguntzak eta ez diruzkoak.

“Diruzko laguntzak” epigrafean 2024ko eta 2025eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiei dagozkien emaitzen kontuen saldoak daude; 622.139,35 eta 772.878,40 euro dira, hurrenez hurren. Epigrafe horretan dago Fundazioaren berezko xedeak betetzeko irabazteko xederik gabeko erakundeei emandako prestazio ekonomikoen zenbateko osoa.

2024an eta 2025ean ez da sortzen dirulaguntza ez den laguntzarik.

2.- Hornidurak eta langileen gastuak

2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagokion emaitzen kontuko “Hornidurak” epigrafearen kontuko saldoa 63.289,51 eurokoa da eta 2025eko abenduaren 31koa 34.963,66 eurokoa.

“Langileen gastuak” epigrafean ez dago saldorik, 2024ko eta 2025eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiei dagozkien emaitzen kontuetan.

3.- Jardueraren beste gastu batzuk

Epigrafe horretan dagoen saldoa 18.171,24 euro eta 40.797,44 euro da, hurrenez hurren, 2024ko eta 2025eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiei dagozkien emaitzen kontuetan.

4.- Sustapen, babesle eta laguntzaileen zioz izandako diru sarrerak

2024ko eta 2025eko abenduaren 31ko emaitzen kontuko epigrafea hau da:

Kontzeptua	Zenbatekoa (€)	
	2024/12/31	2025/12/31
Sustapen, babesle eta laguntzaileen ziozko sarrerak	394.788,00	580.543,00
Enpresa arloko lankidetzak	394.788,00	580.543,00

Fundazioaren ohiko jarduerari dagokion negozio zifraren zenbateko gordina Arabako Lurralde Historikoan egin da.

5.- Ondasunak saldu eta zerbitzuak eskaini

2025eko ekitaldian Fundazioak ez du ondasunik saldu eta zerbitzurik eskaini ere ez.

18. HORNIDURAK ETA KONTINGENTZIAK

Ez dago.

19. INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA

Ez dago.

20. LANGILEEN EPE LUZERAKO ORDAINSARIAK

Ez dago.

21. JASOTAKO DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK

Erakundeak guztira jasotako baliabide ekonomikoak

Ondare garbiaren epigrafe honetako kontuetan 2024ko eta 2025eko ekitaldietan erregistratutako mugimenduak hauek dira:

Mugimenduak	Dirulaguntza publikoengatiko sarrerak (euroak)
Hasierako saldoa 2024ko ekit.	3.987,63
Gehitzeak	300.000,00
Kentzeak	(300.500,04)
Amaierako saldoa 2024ko ekit.	3.487,59
Hasierako saldoa 2025eko ekit.	3.487,59
Gehitzeak	274.788,53
Kentzeak	(275.288,57)
Amaierako saldoa 2025eko ekit.	2.987,55

Mugimenduak	Zenbatekoak (euroak) Dohaintza, legatu eta jaraunspen pribatuengatiko
Hasierako saldoa 2024ko ekit.	28.150,04
Gehitzeak	431.728,00
Aplikazioagatiko bajak	(394.788,00)
Baliogabetzeagatiko bajak	0,00
Amaierako saldoa 2024ko ekit.	65.090,04
Hasierako saldoa 2025ko ekit.	65.090,04
Gehitzeak	580.703,00
Aplikazioagatiko bajak	(580.543,00)
Baliogabetzeagatiko bajak	(2.900,00)
Amaierako saldoa 2025eko ekit.	62.350,04

Kentzeak esan nahi du sarrera horiek (ekitaldiko anulazioak kenduta) dagozkien emaitzen kontuetako epigrafeetan egotzi direla, jasotako baliabideen jatorri publiko edo pribatuaren arabera.

22. IRABAZIZKO XEDERIK GABEKO ERAKUNDEEN ARTEKO FUSIOAK ETA NEGOZIOEN KONBINAZIOAK

Ez dago.

23. BATERAKO NEGOZIOAK

Ez dago.

24. ERAKUNDEAREN JARDUERA. ONDAREZKO ELEMENTUAK NORBERE XEDEETARAKO EZARTZEA. ADMINISTRAZIO GASTUAK

I. JARDUERA

A) Identifikazioa

Jardueraren izena	Goi-mailako klubentzako laguntzen deialdia (A1)
Jarduera mota	Propioa
Jardueraren identifikazioa sektoreen arabera	Kirol jarduera
Jarduera garatzeko tokia	Arabako Lurralde Historikoa

B) Egindako jardueraren azalpen zehatza

Patronatuaren 2024ko abenduaren 19ko bileraren bidez, Kirolaraba Fundazioak 2025eko goi-mailako klubentzako (A1) laguntzen deialdia arautzen duten oinarriak onartu zituen, 190.000,00 euroko zenbatekoarekin. Oinarri horiek 2025eko urtarrilaren 31ko ALHAOn (12. zk.) argitaratu ziren.

Deialdiak, 2. artikuluan, erakunde onuradunak eta baztertuak ezartzen ditu:

- 1.- Kirol klub edo elkarteek ondoko betekizun hauek bete behar dituzte mota honetako laguntzak jaso ahal izateko:
 - a) Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko enklabeen kokatuta egotea.

- b) Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundearen Erregistroan edo dagokion kirol-erakundearen erregistroan inskribatuta egotea.
 - c) Arabako lurraldeko kirol federazioetako bati atxikita egotea.
 - d) Lehiaketa ofizial federatuko jardueretan parte hartzea edo parte hartu izana, betiere kategoria absolutuan, kirol modalitate edo diziplina beraren mailarik gorenean, 2024ko irailaren 1etik 2025eko abuztuaren 31ra bitarteko denboraldian, artikuluko honen 3. eta 4. apartatueta ezarritakoaren arabera.
- 2.- Diruz lagundu ahal izango dira 4. artikuluan deskribatutako gastu guztiak, kirol erakundeak artikuluko honen 1.d) apartatuan zehaztutako epean egin baditu.
- 3.- Nolanahi ere, deialdi honetan parte hartzen duten erakundeek gutxienez talde bat izan beharko dute dagokien lehiaketa mailarik goreneko lehiaketetan. Horren ondorioz, baztertuta egongo lirateke deialdi honetatik honelako lehiaketak: 2 mailako, 3 mailako edo B mailako txapelketak, oinarritzko mailako txapelketak, 2. mailako txapelketak, autonomia erkidegoetako selekzioak eta antzekoak.
- 4.- Artikulu honen aurreko apartatueta jasotakoari dagokionez, honako salbuespen hauek aplikatuko dira:
- a) Xakea, eskubaloia, emakumeen txirrindularitza, kirol egokitua, futbola, herri kirolak, errugbia, emakumeen triatlota, pilota, boleibola eta waterpolo modalitateetan, lehiaketa autonomikoan parte hartzea laguntza honen jarduera onuradunen artean sartuko da. Txirrindularitzan, azpi-23 kategoria onartuko da. Gimnastika erritmikoaren diziplinan, lehen kategoriako kirolariak dituzten klubek soilik jasoko dute laguntza.
 - b) "Zazpi Herrialde" izeneko txapelketan parte hartzea Espainiako Txapelketan parte hartzearen parekoa izango da.
 - c) Arabako Foru Aldundiarekin beren goi mailako talderen baterako babesletza kontratua duten kirol klub eta/edo elkarteek ezin izango dute laguntza deialdi honetara aurkeztu, baina maila altukoak baino beheagoko kategorietako taldeentzako eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte, baldin eta deialdi honetako gainerako betekizunak betetzen badira.
 - d) Aurkeztutako modalitatea/espezialitatea lehendik dauden eta ofizialki onartuta dauden federazioetako batean ere sartzen ez den kasuetan, eskaerak balioesteko ardura duen kide anitzeko organoak, egokia iruditzen bazaio, federazioen arteko baliokide bat hartu ahal izango du erreferentziatzat.
- 5.- Berariaz baztertuta geratuko dira deialdi honetatik honako tipologia hauetakoren batean dauden erakundeak:
- a) Kirol erakunde profesionalak; halakotzat jotzen dira indarrean dauden araudian arautuak (LFP, ACB edo halakotzat jotzen den beste edozein).
 - b) Aurreko a) letran aipatu ez diren eta kirolari profesionalak dituzten klubak.
 - c) Arabako Foru Aldundiarekin euren goi mailako taldeetako batentzako babes kontratua daukaten goi mailako kirol klubak edo taldeak. Aurrekoa gorabehera, kirol klub edo elkarte horiek eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte goi mailakoak baino beheagoko kategorietako taldeentzat, baldin eta deialdi honetako gainerako betekizunak betetzen badira.
 - d) "Profesionaltzat" jo ez diren eta kontratu loturak edo bestelakoak dituzten klubak, baldin eta lotura horiek klub profesionalekin edo halakotzat jotzen direnekin zuzenean badituzte (klub filialak, adibidez).

- e) Kultura eta Kirol Sailak norgehiagoka bidez ematen dituen dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hirugarren klausulan jasotzen diren egoeretan dauden erakundeak.

Deialdiak, 9. artikuluan, prozeduraren instrukzioa eta balorazio-irizpideak ezartzen ditu.

- 1.- Laguntzak banatzeko, puntuazioaren arabera banaketa sistema bat aplikatuko da, honako arau hauek hurrenez hurren aplikatzean datzana:
- a) Erakunde eskatzaile bakoitzari puntu kopuru bat emango zaio, diruz lagundu daitezkeen gastuen guztizkoan oinarrituta, jarraian agertzen den taularen arabera, 4. artikuluan ezarritako diruz lagundu daitezkeen gastu mota bakoitzerako mugak kontuan hartuta:

Diruz lagundu daitezkeen gastuak, guztira	Puntuak
5.000,00 euro arte	5
5.000,01 euro eta 10.000,00 euro bitartean	10
10.000,01 euro eta 15.000,00 euro bitartean	15
15.000,01 euro eta 20.000,00 euro bitartean	20
20.000,01 euro eta 25.000,00 euro bitartean	25
25.000,01 euro eta 30.000,00 euro bitartean	30
30.000,01 euro eta 35.000,00 euro bitartean	35
35.000,01 euro eta 40.000,00 euro bitartean	40
40.000,01 euro eta 45.000,00 euro bitartean	45
45.000,01 euro eta 50.000,00 euro bitartean	50
50.000,01 euro eta 55.000,00 euro bitartean	55
55.000,01 euro eta 60.000,00 euro bitartean	60
60.000,01 euro eta 65.000,00 euro bitartean	65
65.000,01 euro eta 70.000,00 euro bitartean	70
70.000,01 euro eta 75.000,00 euro bitartean	75
75.000,01 euro eta 80.000,00 euro bitartean	80
80.000,01 euro eta 85.000,00 euro bitartean	85
85.000,01 euro eta 90.000,00 euro bitartean	90
90.000,01 euro eta 95.000,00 euro bitartean	95
95.000,01 euro eta 100.000,00 euro bitartean	100
100.000,01 euro eta 105.000,00 euro bitartean	105
105.000,01 euro eta 110.000,00 euro bitartean	110
110.000,00 euro baino gehiago	115

b) Aurreko atalean lortutako puntuazioa honako taula honen arabera dagozkion faktore zuzentzaileekin biderkatuko da:

Irizpidea	Azalpena	Faktore zuzentzailea
1	2024ko deialdi hau justifikatu ondoren hasiera batean esleitutako zenbatekoa murriztu ez bada.	1,15
2	Erakundeak Euskaliten "kudeaketa aurreratuko diploma" izatea bere egituraren funtzionamendua hobetzeko, eta diploma horren ziurtagiria indarrean izatea deialdi hau argitaratzen den egunean.	1,15
3	Erakundeak euskara plan bat izatea eta hura inplementatzen aritzea edo erakundeak euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketari lotutako indarreko ziurtagiri bat izatea (Bikain, Harrobi, Bai Euskarari).	1,10
4	Erakundeak berdintasun plan bat izatea eta hura inplementatzen aritzea.	1,10
5	Erakundeak ekitate/inklusio plan bat izatea eta hura inplementatzen aritzea.	1,10
6	Sozietatearen egoitza Gasteizko udalerritik kanpo duten klubak.	1,15

Aurreko 3., 4. eta 5. irizpideei dagozkien faktore zuzentzaileak aplikatu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Planek indarrean egon behar dute deialdi hau argitaratzen den egunean.
- Planak hainbat urterakoak izan behar dira.
- Planak jasotzen dituzten agiriak jatorrizkoak izan behar dira eta erakundearen banakako analisien emaitza.
- 2024an edo 2024-2025 denboraldian egindako ekintzak eta lortutako emaitzak jasotzen dituen memoria bat aurkeztu beharko da planarekin batera.
- Planen eremuak (berdintasuna, euskara eta ekitatea) plan bakar batean sartu ahal izango dira, betiere ardatz bereizita izanda. Kasu horretan, planean garatutako eremuen faktore zuzentzaileak metatuko dira.

c) Deialdi honen 2. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituen erakunde bakoitzari esleitutako puntuak batuko dira.

d) Deialdi honen 3. artikuluan ezarritako laguntzaren zenbateko osoa erakunde eskatzaile guztiek lortutako puntuen baturarekin zatituko da. Zatiketa horren emaitza puntu bakoitzaren balio ekonomikoa izango da.

e) Erakunde bakoitzari emandako puntu kopurua puntuaren balio ekonomikoarekin biderkatuko da; horrela, erakunde onuradun bakoitzari dagokion diru kopurua lortuko da.

2.- Aurreko 1. apartatuan deskribatutako eragiketen ondoriozko kopuruak ezin izango du muga hauetako bat ere gainditu:

- a) Jardueraren defizitaren muga: gastuen guztizkoaren eta diru sarreraren guztizkoaren arteko aldean ezartzen da muga.
- b) Diruz lagun daitezkeen gastuen muga: diruz lagun daitezkeen gastuen guztizko kopuruan

ezartzen da muga.

c) Eskatutako zenbatekoaren muga.

3.- Muga horiek aplikatu ondoren, erakunde eskatzaile guztiek jaso beharreko zenbatekoaren batura deialdiaren zenbateko osoa baino txikiagoa bada, bigarren banaketa bat egingo da soberako zenbatekoarekin aurreko apartatuan ezarritako muga ekonomikoetara iritsi ez diren erakundeen artean.

Bigarren banaketa horretarako, soberako kopurua zatituko da aurreko atalean ezarritako muga batera ere iritsi ez diren erakundeen puntu kopuruarekin; horrela, puntuari dagokion bigarren balio bat lortuko da. Puntuaren bigarren balio hori biderkatu egingo da erakunde bakoitzari emandako puntu kopuruarekin. Horrela, bigarren banaketa horretan esleitu beharreko diru kopurua lortuko da, eta lehen banaketari gehituko zaio.

Soberakin ekonomikorik badago, aurreko paragrafoan deskribatutako eragiketa errepikatuko da, harik eta deialdiaren gehieneko kopurura iritsi arte, edo erakunde guztiak aurreko apartatuan adierazitako mugaren batera heldu arte.

4.- Ez dute dirulaguntzarik jasoko deialdian ezarritakoaren arabera balioetsi ondoren 150 eurora iristen ez diren eskaerek.

C) Emandako laguntzak:

Kirolaraba Fundazioaren Patronatuko lehendakariaren, 2025eko apirilaren 29an, 202504 Ebazpenaren bidez, deialdia ebatzi eta 190.000,00 euroko laguntzak eman ziren.

- 2025eko maiatzaren 8an, erakunde bakoitzari justifikatu beharreko aurrerakin gisa dagokion zenbatekoa ordaindu zitzaion. Zehazki, dirulaguntzaren % 50, hau da, 95.000,08 euro.

- Bigarren fasean, erakunde bakoitzak gastuak behar bezala justifikatu ahala, gainerako zenbatekoak ordaintzen dira; guztira, 77.276,33 euro.

Erakunde onuradun guztien aurrerakinaren eta bigarren ordainketaren baturak 172.276,41 euro ematen ditu guztira.

Banakatuta, honako hauek dira erakunde onuradunak eta jasotako zenbatekoak:

Entitatearen izena	Aurrerakina	2. ordainketa	Guztira
AGRUPACION DEPORTIVA TENIS MESA GASTEIZ	633,19	633,18	1.266,37
CLUB DEPORTIVO BETI AURRERA	2.743,80	2.743,80	5.487,60
CLUB DEPORTIVO GIMNASIA BETI-RITMICA	2.110,62	844,24	2.954,86
LAUTADA URPOLO GASTEIZ IGERIKETA KIROL ELKARTEA	4.875,52	2.553,84	7.429,36
ARITZA CLUB	3.588,05	3.588,04	7.176,09
AEROBIC-BIRIBILDU CLUB DEPORTIVO GIMNASIA GASTEIZ	2.786,02	2.786,00	5.572,02
BETI ARABA D13 CLUB DEPORTIVO	633,19	633,19	1.266,38
CLUB DEPORTIVO ASPACE-ALAVA	633,19	211,06	844,25
LAUDIOKO LAUTXIRRINKA KIROL KLUBA	485,45	485,44	970,89
GAZTEDI RUGBY TALDEA	4.432,29	4.432,29	8.864,58
CLUB DE TIRO OLIMPICO EMILIO ALAVA	844,25	0,00	844,25
DIDA TRIKIDEAK KIROL KLUBA	1.266,37	561,24	1.827,61
CLUB DEPORTIVO ZUZENAK	633,19	633,18	1.266,37
CLUB DEPORTIVO PELOTAZALE DE GASTEIZ ERREKALEOR	633,19	633,18	1.266,37
C. NATACION MENDITXO	4.854,41	4.854,41	9.708,82
CLUB CICLISTA ZUYANO	2.912,65	1.941,77	4.854,42
ASOCIACION A FAVOR DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL DE	232,17	232,17	464,34
C. D. SAN IGNACIO	2.110,62	2.110,61	4.221,23
CLUB DEPORTIVO CORAZONISTAS DE VITORIA	3.588,05	3.588,04	7.176,09
CLUB LA BLANCA	5.339,86	5.339,50	10.679,36
CLUB ARABATXO DE GIMNASIA	4.411,19	4.411,18	8.822,37
CLUB DEPORTIVO AURRERA DE VITORIA	2.743,80	0,00	2.743,80
CLUB OSKITXO	2.532,74	2.110,61	4.643,35
CLUB GIMNASIA CETED VITORIA	4.010,17	4.010,16	8.020,33
CLUB DEPORTIVO AMURRIOKO ARESKETA GIMNASIA KIROL ELKARTEA	728,16	0,00	728,16
CLUB DEPORTIVO DE GIMNASIA BELESAR	464,34	464,33	928,67
SUMENDI C.D. PATINAJE DE VITORIA-GASTEIZ	1.213,61	1.213,60	2.427,21
CLUB PATINAJE DESLIZA VITORIA	1.899,56	211,06	2.110,62
ZIKLOKROSEROAK TXIRRINDULARITZA KLUBA	1.699,05	1.699,04	3.398,09

ARASKI ARABAKO EMAKUMEEN SASKIBALOIA ELKARTEA DE VITORIA-GASTEIZ	3.799,11	3.351,98	7.151,09
CLUB GIMNASIA RITMICA VITORIA SUPRA	3.376,99	3.376,98	6.753,97
BAT-GORA KIROL KLUBA	3.090,15	3.090,15	6.180,30
MR.TINTXO KIROL KLUBA	211,07	0,00	211,07
ALDAKETA DARRAI TXIRRINDULARITXA KLUBA	2.532,74	844,25	3.376,99
CLUB NATACION JUDIZMENDI	5.873,84	5.873,84	11.747,68
AGRUPACION DEPORTIVA KYU	4.745,63	4.118,95	8.864,58
HARRIKADA NEGUKO KIROL KLUBA	2.743,80	2.743,80	5.487,60
CLUB BARRUTIA ATLETISMO ELKARTEA	3.588,05	951,23	4.539,28
	95.000,08	77.276,33	172.276,41

D) Ukatutako eskaerak

Espedientea Expediente	IFZ NIF	Elkartea Entidad
01176001-2025/00035	G01511336	C.D. BETOÑO
01176001-2025/00040	G01568526	JATORKIDE BOLEIBOL KIROL KLUBA
01176001-2025/00041	G01339977	CLUB DEPORTIVO LAUDIO DE FUTBOL SAN ROKEZAR

E) Jardueran erabilitako giza baliabideak.

Fundazioak ez du giza baliabiderik erabili.

F) Jardueraren onuradunak edo erabiltzaileak.

Mota	Kopurua	
	Aurreikusita	Eginda
Pertsona juridikoak	50	38

G) Jardueran erabilitako baliabide ekonomikoak.

Gastuak / Inbertsioak	Zenbatekoa	
	Aurreik.	Eginda
Laguntzen eta bestelakoen gastua		
a) Diruzko laguntzak	190.000,00 €	172.276,41 €
Finantza gastuak	0,00 €	0,00 €
GUZTIRA	190.000,00 €	172.276,41 €

II. JARDUERA

A) Identifikazioa

Jardueraren izena	Goi mailako kirolarientzako laguntzen deialdia (A2)
Jarduera mota	Propioa
Jardueraren identifikazioa sektoreen arabera	Kirol jarduera
Jarduera garatzeko tokia	Arabako Lurralde Historikoa

B) Egindako jardueraren azalpen zehatza

Patronatuak 2025eko maiatzaren 12an egindako bileraren bidez, Kirolaraba Fundazioak 2025ko goi-mailako kirolarientzako laguntzen deialdia (A2) arautzen duten oinarriak onartu zituen (40.000,00 euro). Oinarri horiek 2025eko uztailaren 23ko ALHAOn argitaratu ziren, 83. zenbakian.

Deialdiak, 2. artikuluan, erakunde onuradunak eta baztertuak ezartzen ditu:

1. Araban edo Trebiñuko enklabeen bizi eta lizentzia federatua duten kirolariek honako betekizun hauek bete behar dituzte mota honetako laguntzak jaso ahal izateko:
 - a) Gutxienez 2022eko urtarrilaren 1az geroztik Arabako Lurralde Historikoko udalerriren batean edo Trebiñuko enklabean erroldatuta egotea modu jarraituan.
 Eskatzaileek, aldi baterako eta ezinbestean, errolda Arabako Lurralde Historikokoak ez diren herri batean edo Trebiñuko enklabean lortu behar badute, baldintza hori bete gabe ezin izango dutelako kirola hobetu, betekizun horretatik salbuetsi ahal izango dira, aldez aurretik justifikazio idazkia aurkeztuta.
 - b) Dagokion kirol modalitateko Arabako federazioak emandako federazio lizentzia indarrean izatea (2024-2025 denboraldikoa edo 2025. urtekoa).
 Eskatzaileek, aldi baterako eta ezinbestean, lizentzia Arabako Lurralde Historikokoak ez den kirol federazioaren batean lortu behar badute, baldintza hori bete gabe ezin izango dutelako kirola hobetu, betekizun horretatik salbuetsi ahal izango dira, aldez aurretik justifikazio idazkia aurkeztuta.
 - c) Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren eranskinean (egungo idazketan) zehaztutako modalitatearen batean bakarrik eta eskusiboki lortzea kirol arrakasta.
 - d) Nor bere kirol modalitatean, estatuko, Europako edo munduko txapelketetan edo Olinpiar Jokoetan lehiatu izana. Probak Espainiako federazioaren, Europako federazioaren, nazioarteko federazioaren edo liga profesionalaren egutegian sartuta egon beharko dira, edo joko olinpikoen programa ofizialean lortuta.
 Lehiaketetan parte hartzeko aldez aurreko sailkapena lortu behar izatekotan baino ez dira kontuan hartuko merezimenduak, edo, munduko edo Europako txapelketen kasuan, estatuko selekzioaren edo Basque Country-ren ordezkari gisa parte hartzen bada haietan.
 - e) Kirol modalitate edo diziplinako lehiaketa hainbat mailatan antolatuta badago, lehiaketako maila gorenetan kirol arrakasta lortu izana, "kategoria gorena" dibisio edo talde altuena dela ulertuta.
 Ondorioz, honelako lehiaketek ez dute laguntza jasotzerik: 2 mailako, 3 mailako edo B mailako txapelketak, oinarrizko mailako txapelketak, 2. mailako txapelketak, autonomia erkidegoetako selekzioak eta antzekoak.
 - f) Aurreko e) letran ezarritakoa alde batera utzi gabe, jarraian zehazten diren modalitate edo diziplinetan honako kategoria hauetan lortutako merezimenduak soilik hartuko dira kontuan:

- Gimnastika erritmikoaren diziplinan, lehenengo senior kategorian lortutako kirol arrakastak edo ohorezko seniorrean lortutakoak baino ez dira balioetsiko. Gimnastikako gainerako diziplinetan, senior kategorian lortutako kirol arrakastak baino ez dira balioetsiko.
 - "Zazpi Herrialde" izeneko txapelketan parte hartzea Espainiako Txapelketan parte hartzearen parekoa izango da.
 - Hipika modalitatean, ez dira kontuan hartuko CSI kategorian edo beheragokoan lortutako merezimenduak.
2. Deialdi honetatik kanpo geratuko dira, berariaz, hartan eskatzen diren betekizunak betetzen ez dituzten kirolariak, eta, bereziki, honako tipologia hauetako batean sartzen direnak:
- a) Artikulu honetako aurreko apartatuan adierazitako lehiaketetako batean parte hartu izana justifikatzen ez dutenak.
 - b) Kultura eta Kirol Sailak norgehiagoka bidez ematen dituen dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren 3. oinarrian jasotzen diren egoeretan dauden pertsonak.
 - c) Kirolari profesionalaren kategoria dutenak.
 - d) Talde bateko kide desberdinen banakako ekintzen baturaren ondorioz kirol arrakasta lortu dutenak.
 - e) Adinaren arabera mugatutako kategorietan parte hartzeagatik kirol arrakasta lortu dutenak (sub-16, sub-18, sub-20, master 30, master 40...).

Deialdiak, 8. artikuluan, prozeduraren instrukzioa eta balioespen irizpideak ezartzen ditu:

